



-Idiazabalgo haur, nerabe-eta gazteentzako balio anitzeko hainbat zerbitzu emateko preskripzio teknikoen agiria-

AURKIBIDEA

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

- 1.1. Gazteria Politika
- 1.2. Gazteria Zerbitzuak
- 1.3. Zeharkako lerroak
- 1.4. Gazteria Zerbitzuen jarduera-arloak

2. KONTRATUARI BURUZ ORO HAR

- 2.1. Xedea
 - 2.1.1. Udal Ludoteka
 - 2.1.2. Opor garaietako Ludoteka (Aste Santu eta udako oporraldiak)
 - 2.1.3. Gaztelekua
 - 2.1.4. Opor garaietako Gazte Aisia (Aste Santu eta udako oporraldiak)
- 2.2. Zerbitzuaren ezaugarriak
- 2.3. Zerbitzuaren hartzaileak
- 2.4. Zerbitzuaren helburuak

3. ZERBITZUAREN PRESTAZIOARI BURUZ

- 3.1. Zuzeneko arreta
- 3.2. Barne lana
 - 3.2.1. Planifikazioa
 - 3.2.2. Ebaluatzea
 - 3.2.3. Koordinazioa
 - 3.2.4. Zerbitzuaren zabalkundea
 - 3.2.5. Etengabeko prestakuntza
- 3.3. Zehar lerroak garatzea
 - 3.3.1. Euskara
 - 3.3.2. Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna
 - 3.3.3. Inklusioa

4. AZPIEGITURAK ETA BITARTEKO MATERIALAK

- 4.1. Azpiegiturak
- 4.2. Bitarteko materialak

5. ZERBITZUKO EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK

- 5.1. Udal Ludoteka
- 5.2. Opor garaietako aisialdia
- 5.3. Gaztelekua
- 5.4. Opor garaietako Gazte Aisia
- 5.5. Zerbitzu hauetarako talderik sortuko ez balitz
- 5.6. Premia berezia duten haurren, nerabeen eta gazteen arreta

6. ZERBITZUKO LAN TALDEAK ETA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

- 6.1. Giza baliabideak
- 6.2. Langileen prestakuntza baldintzak
- 6.3. Udalarekin harremanetarako arduraduna
- 6.4. Kontratututako langileen agirien aurkezpena

7. EUSKARA

8. INBENTARIOA



9. IKUSKAPENA
10. ESLEIPENDUNAREN ARDURA
11. KONTRATUAREN PREZIOA
12. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK
13. KONTRATUAREN IRAUPENA
14. B KARTAZALEAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA



IDIAZABALGO HAUR, NERABE ETA GAZTEENTZAKO BALIO ANITZEKO HAINBAT ZERBITZU EMATEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA.

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

1.1. Gazteria Politika

Idiazabalgo Udalaren Gazteria Politikaren xede nagusia da herriko haurrei, nerabeei eta gazteei haien haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan garatzeko eta gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea ematea, etapa bakoitzak dituen bi alderditan:

- Berezko balioa eta esanahia duen bizi-etapa gisa.
- Heldutasunera arrakastaz eta asetasunez igarotzeko aukera ematen duen bizi-etapa gisa.

1.2. Gazteria-Zerbitzuak

Gaztematika, Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistemaren arabera, Gazteria politika bultzatzeko tresna nagusiak bizi-etapa bakoitzari zuzendutako zerbitzuak dira:

- Haurrentzako Balio Anitzeko Zerbitzua.
- Nerabeentzako Balio Anitzeko Zerbitzua.
- Gazteentzako Balio Anitzeko Zerbitzua.

Guzti horietatik lehenengo zerbitzu horien barruko hainbat atal emateko helburua du baldintza plegu honek: Haurrentzako Balio Anitzeko Zerbitzua –**HBAZ** aurrerantzean-ren barruko Ludoteka, Aste Santu eta Udako aisialdi programak.

HBAZ zerbitzuarekin, aisialdi eskaintza egonkorra, etengabea eta koherente zuzentzen zaie haurrei, euren garapen osoa, gozamina eta autonomia pertsonala bilatzen dituen.

Gaztematikak HBAZ zerbitzua zehazteko oinarritzko dokumentua landu eta argitaratu du eta horiek izango dira baldintza plegu honen erreferentzia teoriko orokorra.

1.3. Zeharkako lerroak

Zerbitzuan garatutako jarduera guztietan funtsezkotzat hartzen ditugu bost zehar lerro hauek:

1. Euskara.
2. Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna.
3. Inklusioa. Gizarteratzea eta integrazioa.
4. Baloreen transmisioa.
5. Herritartasun aktiboa eta parte-hartzea.

1.4. Gazteria Zerbitzuen jarduera-arloak

Haurrentzako Balio Anitzeko Zerbitzuan, sei jarduera-arlo zabal hauek eskaintzen zaizkie hartzailerei:

1. Informazioa.
2. Orientazioa.
3. Bide-laguntza.
4. Aisia hezitzailea.
5. Adierazpenerako eta partaidetzerako bideak.
6. Sorkuntzarako eta produkziarako bideak.

Jarduera-arlo horien inguruko zehaztapen gehiago “Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistema” dokumentuan daude.

2. KONTRATUARI BURUZ ORO HAR

2.1. Xedea

Oinarri hauen xedez, Idiazabalgo Udalak, bere gazteria politikaren barruan Haur eta Gazteentzako Balio Anitzeko Zerbitzua (HBAZ)ren barruko hainbat atal emateko baldintza teknikoak arautzea da.



Kontratuaren exekuzioa zerbitzuaren planifikatze eta antolaketa lanetan gauzatzen da, agiri honetan ezarritakoarekin bat etorrita eta Udaleko Kultura eta Gazteria Sailaren zuzendaritzapean.

Zehazki, zerbitzuak ondoko eskaintzak bilduko ditu:

- A. Udal Ludoteka.
- B. Opor garaietako Ludoteka (Aste Santu eta udako oporraldiak).
- C. Gaztelekua.
- D. Opor garaietako Gazte Aisia (Aste Santu eta udako oporraldiak).

A) Udal Ludoteka:

Idiazabalgo Udaleko Kultura eta Gazteria Batzordearen menpe dagoen 4-11 urte bitarteko haurrei zuzendutako zerbitzua da, non parte hartzen duten haurren eskura joku eta jostailuez hornituriko espazio edukatibo bat eskaintzen den. Heziketa proiektu baten laguntzaz eta denbora librean ekintza ludikoen bitartez epe ertainera haur horien garapen sozial, afektibo eta kognitiboa faboratzea du helburu, beste haur, guraso eta hezitzaileekin dituzten harremanak landuz.

B) Opor garaietako Ludoteka (Aste Santuak eta udako oporraldiak):

2 eta 11 urte bitarteko (biak barne) haur izaldarren oporraldietako aisia antolatu, programa osatu eta anitz baten bidez, hauen garapen sorgarria eta artistikoa landu aisia eremu batean.

C) Gaztelekua:

Idiazabalgo Udaleko Kultura eta Gazteria Batzordearen menpe dagoen 12-17 urte bitarteko haurrei zuzendutako zerbitzua da, non parte hartzen duten gazteen eskura joku eta jostailuez hornituriko espazio edukatibo bat eskaintzen den. Heziketa proiektu baten laguntzaz eta denbora librean ekintza ludikoen bitartez epe ertainera gazte horien garapen sozial, afektibo eta kognitiboa faboratzea du helburu, beste gazte, guraso eta hezitzaileekin dituzten harremanak landuz.

D) Opor garaietako Gazte Aisia (Aste Santu eta udako oporraldiak):

12 eta 17 urte bitarteko (biak barne) gazte izaldarren oporraldietako aisia antolatu, programa osatu eta anitz baten bidez, hauen garapen sorgarria eta artistikoa landu aisia eremu batean.

2.2. Zerbitzuaren ezaugarriak

HBAZ gizarte hezkuntzako zerbitzu publikoa da, haur eta gazteei zuzendutakoa. Haur, nerabe eta gazteei zuzendutako arretaren tokiko sarean txertatzen dira. Sare horren baitan era koherente eta koordinatuan lan egin behar du.

Zerbitzuaren eskaintza hartzaileen beharretatik eta interesguneetatik abiatuta osatuko da eta haien parte hartzea sustatuko da antolatze maila guztietan.

Zerbitzu honetan 1.4 oinarrian aipatutako sei jarduera-arlo zabalak jorratuko dira eta eskaintzan lokalen barruan zein aire zabalean burutzeko jarduerak egongo dira.

Zerbitzu hau tresna eraldatzailea, orekatzailea, integratzailea eta hezitzailea da, bai eta parte hartzean eta aukeretan oinarritutako espazio komunitarioak ere.

2.3. Zerbitzuaren hartzaileak

1. Udal Ludoteka: 4-11 urte (biak barne) bitarteko haurrei zuzendua dago.

2. Opor garaietako Ludoteka (Aste Santua eta udako oporraldiak)

2 eta 11 urte bitarteko (biak barne) haurrentzat zuzendutako Aste Santu eta uda garaiko aisialdi eskaintza da.

3. Gaztelekua: 12-17 urte (biak barne) bitarteko gazteei zuzendua dago.

4. Opor garaietako Gazte Aisia (Aste Santua eta udako oporraldiak):

12 eta 17 urte bitarteko (biak barne) gazteentzat zuzendutako Aste Santua eta udarako eskaintza da.

Adin tarte hauetan, zerbitzu bakoitzean egokituz jotzen diren txanda, edo taldeak proposatu ahalko dira, beti ere, Udalarekin aldeztu aurretik adostuta.

Gainera, zuzenean zerbitzuaren erabiltzaile izan ez arren, zeharkako hartzailetzat joko dira haurren heziketaren ardura konpartitzen duten helduak ere (gurasoak, hezitzaileak, irakasleak, e.a.).



Zerbitzuko hartzaileek, finkatutako helburuei eta eskaintako programari jarraituz, eskubidea dute zerbitzuak behar bezala eta modu eraginkorrean jasotzeko.

Zerbitzuko hartzaileek beren eskura jarritako ekipamendua eta materiala helburuaren arabera errespetatu eta erabiltzeko betebeharra dute.

2.4. Zerbitzuaren helburuak

Haur eta gazteen beharrak asetzeko ondorengo helburu hauek landuko dira:

- Haur eta gazteen aisialdiaz era aktiboan, parte hartzailean, sortzailean eta osasungarrian gozatzea.
- Haurrentzat esanguratsuak izango diren harreman pertsonalak eraikitzeko gune aproposa eta aukerak eskaintzea, adin berekoekin zein lan taldeko helduekin.
- Aisialdia euskaraz bizitzeko eskubidea bermatzea eta euskal kultura sustatzea. (Zerbitzu eta eskaintza euskaldunak izatea).
- Haur eta gazteak Idiazabalgo herritar aktibo izateko, bertako bizi ohituretan, jardueretan, txertatzea.
- Nesken eta mutilen arteko aukera berdintasuna ziurtatzea.
- Haur eta nerabe etorkinen parte hartzea eta inklusioa sustatzea.
- Aisialdi eredu kontsumistari alternatibak eskaintzea.
- Balioen heziketa sustatzea: errespetua, bizikidetzatza, elkartasuna.
- Haur eta gazteen parte hartze aktiboa eta askea bultzatzea, bai zerbitzuan –maila guztietan- eta baita auzo eta herri mailan ere, bakoitzak bere interes eta ahalmenen arabera.
- Haurrek eta gazteek jarduera berriak ezagutzeko eta parte hartzeko aukera eskaintzea eta baita zaletasunak garatzeko ere.
- Behar bereziak dituzten haur eta gazteek zerbitzuak erabiltzeko aukera erraztea.
- Haur eta gazteen informazio eta orientazio beharrei erantzutea.
- Adin talde berdinekin lan egiten duten herriko eta inguruko eragileekin eta zerbitzuekin sare lana bultzatzea.
- Haurrek eta gazteek, beste haur eta gazteekin zein helduekin, familiarekin harremana eta jolasteko aukerak izan ditzatela.
- Gurasoei euren egunerokotasunean haur eta gazteen heziketarekiko sortzen zaizkien zalantzak argitzen laguntzea.

3. ZERBITZUAREN PRESTAZIOARI BURUZ

Egin beharreko lana, 2.4. atalean azaltzen diren helburuak betetzera bideratuko du esleipendunak, beti ere Idiazabalgo Udaleko Gazteriaren Politikaren baitan eta Kultura eta Gazteria Sailaren zuzendaritzapean.

Zerbitzu honen arduradun nagusiak Idiazabalgo Kultura eta Gazteria Sailak dira. Oro har, Udalak zehaztutako orientazioak eta arauak beteko ditu enpresa esleipendunak. Orientazio horien xehetasunak 3.atal honetako hurrengo puntuetan garatuta azaltzen dira.

3.1. Zuzeneko arreta

Ludoteka, Gazteleku eta opor garaietako aisialdi garaietan, herriko udal instalazioak, kalea eta auzoetako beste baliabide batzuk izango dira haur eta gazteei arreta emateko gune nagusiak. Zerbitzu hauetan, sei jarduera mota burutuko dira (informazioa, orientazioa,...) eta eskaintza zehatza erabiltzaileen behar eta interesguneetatik abiatuko da.

Jarduera-proposamen zabala izango du, horietan oinarrituta haurrekin eguneroko eta gazteekin asteburuetan aisia-proposamenak adosteko.

Haur eta gazteen interes eta gogoak azaleratu eta landuko dira zerbitzuan eta berarien parte hartzea bilatuko da zerbitzuko eskaintzaren antolaketa fase ezberdinetan. Haur eta gazteen adinari egokitutako programazioak eskainiko dira.

Era berean, zerbitzuaren funtzionamendu egokirako ezarri beharreko bizikidetzatza arauak erabiltzaileek eta lan taldeak elkarrekin eztabaidatu eta adostuko dituzte.



Antolatutako ekintzez gain, antolatu gabeko uneak ere aurre ikusiko dira, zeintzuetan haur eta gazteek modu askean, jolastu, hitz egin edo atsedean hartzeko aukera izan dezaten.

Langilearen eta erabiltzailearen arteko harreman hezitzailea ezinbesteko erreminta izango da eskeintza antolatzerakoan. Besteak beste, eskaintzak honako hauek hartuko ditu barne: antolatu gabeko jarduerak, antolatutako jarduerak, proiektzioak, ikuskizunak, irteerak, herriko eta auzoetako ekimenetan parte hartzea (jaiak, txapelketak, errebindikazio egunak, elkarten egitarauak,...), erabiltzaile ez diren haurrei zuzendutako ekintzak, e.a.

Era berean, sustapen lana egingo da haur eta gazteak herritar aktibo izan daitezen, gizartean jarrera arduratsuak eta kritikoak hartzen hasi daitezen eta beraien ingurune hurbileko dinamizatzaile bihurtzeko. Auzoa ezagutu eta bertan integrazteko proiektu bat izango du. Ildo beretik, herri mailako beste elkarte eta ekimenekiko harremana eta elkar ezagutzea sustatuko da.

3.2. Barne lana

Zuzeneko arretaz gain, zerbitzuak bere lana planifikatu, komunikatu eta ebaluatuko du eta barne lan hori burutzeko uneak aurreikusi behar dira lana antolatzerakoan.

- **Planifikazioa**

Planifikazioaren bitartez, helburuak lortzeko jarduerak, estrategiak eta ekimenak zehaztuko dira. Horretarako, zerbitzuaren aurrekariak hartu beharko dira kontutan: aurreko ebaluazioak, Udaleko Kultura eta Gazteria sailek zehaztutako lehentasunak, erabiltzaileen proposamenak eta balioespenak, e.a.

Arreta berezia eskainiko zaie jardueren programazioari eta plangintzaren eta erabakiak hartzeko prozesuaren izaera parte hartzaileari. Planifikatu beharko da, beraz, haurren parte hartzea zerbitzu prestazioaren atal ezberdinetan nola sustatu.

Zerbitzuan hiru planifikazio egingo dira: ikasturtekoa eta hiru hilekoa. Plangintza Gazteria teknikariarekin adostu beharko da.

- **Ebaluatzea**

Zerbitzuari eta inguruneari buruz informazioa lortzeko eta prozesatzeko egingo den guztia barne hartuko du ebaluazioak. Jarduketa ziklo berri bati aurre egiteko deskribapenak, azterketak eta balioespenak lortzea da informazio horren helburua, ziklo berri hori ahalik eta era egokienean planifikatu ahal izateko.

Haur eta gazteen parte hartzea funtsezkoa izango da zerbitzuaren ebaluazio egiteko.

Ebaluazio txostenetan informazio hau jaso beharko da: datu kuantitatiboak (bertaratzea, jardueretako parte hartzea, baliabide materialak, ...), datu kualitatiboak (haur eta gazteen asebetetze maila, jarrerak, balioespenak, genero perspektibo, guraso eta hezitzaileen asebetetze mailak...) eta zerbitzuak hobetzeko proposamenak.

Ebaluaziorako momentu ezberdinak aurre ikusiko dira: eguneroko ebaluazioa, hiru hilekoa eta urtekoa. Eguneroko ebaluazio dagokion eguneko fitxa betetzean egingo da. **Hiru hilean** behin, ebaluazio txostenak aurkeztutako dira Udalean, eskaintza bakoitzeko txosten bat, eta dagozkien txostenak ikasturte bukaeran aurkeztuko dira.

Horrez gain, Udal Ludotekaren jarraipena egiteko hiruhilabeteko jarraipen bilera(k) egingo d(ir)a.

Kultura eta Gazteria Sailak egingo du zerbitzuaren jarraipena.

- **Koordinazioa**

Haur eta Gazteentzako Balio Anitzeko Zerbitzuaren martxa egokirako derrigorrezko eginkizuna dugu koordinazioa. Izan ere, haur eta gazteen beharrak eta interesak anitzak izanik, horiei erantzuteko arlo eta eragile ezberdin askorekin batera elkarlanean aritu beharko da.

- **Zerbitzuaren zabalkundea**



Zerbitzuaren zabalkundeaz esleipenduna arduratuko da, beti ere, Udalaren irizpideak jarraituta eta Kultura eta Gazteria Sailekin adostuta.

Zerbitzuaren inguruko informazio orokorra (helburuak, lan ildoak, ...) zein zehatza (egitarauak, jarduerak, ordutegiak, ...) eskainiko zaie hartzaileei, eragileei eta herritar orori, aldez aurretik esleipendunak eta udalak adostutako zabalkunde plan bati jarraiki. Plan horretan zehaztuko dituzte zein informazio zabaldu noiz (ikasturte hasieran, opor garaian, data zehaztetan, ...), zein helbururekin (erabilera sustatzea, egitarauen berri ematea, ...) eta zein bide erabili (komunikabideak, esku orriak, blogak, sare sozialak, ...)

- **Etengabeko prestakuntza**

HBAZ zerbitzuko langileen etengabeko prestakuntza esleipendunaren erantzukizuna izango da. Era berean, Udalak lehentasunezkoztat jotzen dituen zenbait gairen inguruan (prebentzioa, tratu onak, sexualitatea, ...) esleipendunak ahokularitza edota prestakuntza eskaini beharko die langileei.

Bestalde, Udalak bideratutako lan taldeetan (haurren lan taldea, tokiko organo teknikoa, ...) zein lurralde mailan Gaztematikaren baitan sortutakoetan ere (hezitzaileen foroak, lan talde zehatzak, ...) esleipendunak parte hartuko du Udalak hala eskatutakoan.

3.3. Zehar lerroak garatzea

Oinarri hauetako 1.3. puntuan zehaztutako zeharkako lerroak garatzeko estrategiak abiaraziko dira ikasturte bakoitzean, jarraian azaltzen diren irizpideak kontutan hartu:

- **Euskara**

Euskara izango da **Haur eta Gazte BAZ** zerbitzuko atal hauen hizkuntza, bai laneko hizkuntza moduan (harremanetarako, koordinaziorako, antolatzeke, ...) eta baita hartzaileei egingo zaien zuzeneko harreran ere. Horretarako, beharrezkoak diren baldintza guztiak bermatuko dira: hezitzaile euskaldunak, euskarazko materiala, erabilera sustatzeko planifikazio lana, ... ekipamendu eta erabiltzaile bakoitzaren hizkuntz errealitatea kontutan hartuta, planak eta estrategiak inplementatuko dira euskararen erabilera sustatzeko, euskararen aldeko jarrerak bultzatzeko eta euskal kultura ezagutzera emateko.

- **Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna**

Haur eta Gazte BAZ zerbitzuan nesken eta mutilen arteko aukera berdintasuna errealitate bilakatzeko etengabeko lana egingo da, besteak beste: neskentzat eta mutilentzat interesgarria den eskaintza egingo da, debateetan eta erabakiak hartu behar direnean nesken presentzia eta parte hartze aktiboa bultzatuko da, espazioa banatzeko orduan, hedapen materialean azalduko diren irudiak aukeratzekoan, hizkuntza ez sexista erabiltzean, ...

- **Inklusioa**

Haur eta Gazteen artean dagoen aniztasuna kontuan hartuta, zerbitzuak arreta berezia eskainiko die premia bereziak dituzten pertsonen (gizartean zailtasunak dituztenak, urritasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoak, jarrera arriskutsuak dituztenak, ...). Zehar lerro honen garapenean ondoko hauekiko elkarlana sustatuko da: Udaleko Gizarte Zerbitzuak, ikastetxea...



4. AZPIEGITURAK ETA BITARTEKO MATERIALAK

4.1. Azpiegiturak

1) Udal Ludoteka: Plaza Nagusia 1

Udalak lokalak eta oinarrizko ekipamendua jarriko ditu (lokalen eta bulegoen altzariak, ekipamendu informatikoa eta oinarrizko materiala). Argindarra, ura, telefonoa eta interneteko konexio gastuak ere Udalaren kontura izango dira. Oinarrizko garbiketaz ere arduratuko da.

Bulego materialaren horniketaz eta lokal eta ekipamenduaren erabilera zuzenaz esleipenduna arduratuko da. Lokala eta bulegoa txukun mantentzearen ardura esleipendunarena ere izango da. Baita ere bestelako erabileragatik sortu daitezkeen gastu, tasa eta gainerako zergak.

2) Opor garaiko haur eta gazteen aisialdia

Herrian zehar eta herriko instalazio ezberdinetan izango dira Udalekuak eta hauen erabilera, Udalak aurrez udal instalazioen arduradunekin adostuko du. Udala hauen kosteaz arduratuko da.

Opor garaiko aisialdian, behar den material eta ekintzetarako gastuak esleipendunaren kontura izango dira: mahai jolasak, jostailuak, jokoak, tailerretan erabiltzeko materiala, jarduera bereziak, etab. Material horren jabetza betiere esleipendunarena izango da.

Erabilitako instalazioak eta oinarrizko ekipamendua egoera onean mantendu behar dira eta ondo zaintzeko bitartekoak erabili. Kalterik gertatzen bada, esleipendunaren kontura izango dira kostuak.

3) Gaztelekua: Kale Nagusia 28

Udalak beharrezko lokalak, instalazioak eta ekipoak utziko dizkio esleipendunari, eta bere gain hartuko ditu haien garbiketa, mantentze-lanak, segurtasuna eta erosotasun, baita ur-hornidura, argindarra eta berokuntza-sistema ere, hezitzaileek eta gazteek nahiz familiek aisialdiko ekimenak ahalik eta modurik egokienean gara ditzaten.

Udalak azpiegituretan eta baliabideetan proposatutako hobekuntzak kontuan hartu eta ahal den heinean beteko ditu.

4.2. Bitarteko materialak

Zerbitzuko ekintzak burutzeko, Ludotekako jostailu fondoa berritzeko. eta behar den materiala erosteko urtero 3.000 € kontsignatuko du Idiazabalgo Udalak aurrekontuan programetarako materiala erosteko.

Zenbateko ordainduko zaio urte bakoitzeko lehengo fakturan eta kopuru horren kontura egindako gastuen zuriketa urte amaitu baino lehen.

5. ZERBITZUKO EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK

5.1. Udal Ludoteka:

Urrian lehenengo astean eta ekaineko hirugarren astera (biak barne), herriko eskolen egutegien opor egunak mantenduz. Astelehenetik-ostiralera, 17:00etatik 18:30etara emango da zerbitzua. Lan-egutegiaren zehaztapen guztiak Kultura eta Gazteria sailarekin adostuko dira ikasturtearen hasieran herriko eskoletako egutegiak kontuan izanda. Gabonetan eta Aste Santuko oporretan ez da zerbitzurik egongo.

5.2. Opor garaiko Haurren aisialdia:

Haur eta gazteentzako, ekaineko azken astean hasi, eta uztailean, astelehenetik ostiralera, jai egunak ezik eta 9:00tatik 12:30tara izango dira.



Dena den, ordutegi hauek, zerbitzuaren eskaera eta beharren arabera, aldaketak izan ditzakete Idiazabalgo Udaleko Kultura eta Gazteria Sailak hala eskatuz gero. Nolanahi ere, zehaztutako ordu kopuruak beti errespetatuz.

Gainera Aste Santuan (egutegian markaturik azaltzen den egunak kontutan hartuaz), aisialdi jarduera bereziak antolatuko dira astelehenetik ostiralera goizeko 10:00tatik 13:00tara jai egunak izan ezik.

5.3. Gaztelekua:

Urriari hasi eta ekaineko hirugarren astera (biak barne), herriko eskolen egutegien opor egunak mantenduz. Larunbata eta igandeetan, 17:00tatik 20:00tara emango da zerbitzua. Lan –egutegiaren zehaztapen guztiak Kultura eta Gazteria sailarekin adostuko dira ikasturtearen hasieran herriko eskoletako egutegiak kontuan izanda.

5.4. Opor garaiko Gazte Aisia:

Gazteentzako, ekaineko azken astean hasi, eta uztailean, astelehenetik ostiralera, jai egunak ezik eta 10:00etatik 12:30tara izango dira.

Dena den, ordutegi hauek, zerbitzuaren eskaera eta beharren arabera, aldaketak izan ditzakete Idiazabalgo Udaleko Kultura eta Gazteria Sailak hala eskatuz gero. Nolanahi ere, zehaztutako ordu kopuruak beti errespetatuz.

Gainera Aste Santuetan (egutegian markaturik azaltzen den egunak kontutan hartuaz), aisialdi jarduera berezi hauek antolatuko dira astelehenetik ostiralera, jai egunak ezik eta 10:00etatik 13:00tara izango dira.

5.5. Zerbitzu hauetarako talderik sortuko ez balitz:

Zerbitzu hauek emateko betebeharreko baldintza izango da, sortutako taldeetako gutxieneko pertsona kopurua 8 lagunekoa izatea, kopuru hau baino gutxiagokoa bada, ez da zerbitzurik eskeiniko.

Kasu honetan, Idiazabalgo Udalak hauetako erabaki bat aukeratu ahalko du:

- a.- Kontratua aldatzea prestazioa burutzeko betebeharra ezabatuz eta dagokion prezioaren murrizketarekin batera, kontratistak inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe.
- b.- Ludoteka- zein gazteleku-zerbitzuak edo oporraldietarako programak aldatzea, ezabatutako prestazioaren ordean, ondorengo prestazioaren bat(zuk) edo guztiak sartuz, urteko kontratuaren zenbatekoaren muga gainditu gabe:

-Eskolaz kanpoko jarduerak, goizaldeko klaseak, eskola-errefortzua, atzerriko hizkuntzetan jarduerak burutzea, hiriko kanpalekuak...

- Kulturako jarduerak (dantza, antzerkia, zinemaldia...), txangoak, irteerak, erakusketak, tailerrak, ondarea historiko edo kultura-ondarea dinamizatzeko jarduerak, gastronomia, eta, oro har, aisialdian esku hartzeko gizarte-kulturako, kulturako edo heziketako programak eta ekitaldiak.

-Haurrentzako eta nerabeentzako kolonia-etxeak, aterpeak, mendi-kanpalekuak, ingurumen interpretazio zentroak, ingurumenarekiko heziketa programak, aurrekoen antza duten jarduerak eta natur ingurunean edo hirigunean esparru irekietan antolatutako heziketa-zerbitzuak.

-Lizitatzaile esleipendunak bere eskaintzan aurkeztutako beste batzuk (B kartazalean: proposamen teknikoan).

5.6 Premia berezia duten haurrei, nerabeei eta gazteei arreta ematea

Premia berezia duten haurrei, nerabeei edo gazteei arreta berezia eskaintzeari zuzendua. Zenbateko hori erabiltzeak eskatuko du kontratuaren prezioa gorantz aldatzea, arreta berezia eskainiko zaien haurren kopuruaren arabera izango da, eta enpresa kontratistak zehaztuko du faktura berezian. **3.500€ko gehienezko kopurua urtero ezartzen da** (%21eko BEZa barne).

Premia berezia duen ume edo nerabe bakoitzari asteko hiru orduko arreta berezia eskainiko zaio eta dagokion planifikazioa hiru hilabete behin berriz aztertuko da.



6. ZERBITZUKO LAN TALDEAK ETA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

6.1. Giza baliabideak

Zerbitzuak era egokian eskaini ahal izateko, lan talde egoki bat jarriko du esleipendunak. Udalarren Gazteria saileren erabakia errespetatuz, haur eta gazteen talde kopurua gutxienez 8 pertsonakoa izango da, Udalak hemendik beherako taldeen zerbitzurik ez du eskeiniko.

Gutxienez, langile hauek arituko dira zerbitzuan:

1) Udal Ludoteka:

Hezitzaile bat egon beharko da, astelehenetik ostiralera (biak barne), Urriaren lehenengo astetan hasi eta ekaineko hirugarren astera (biak barne). Iraila, zerbitzuaren irekiera prestatzeko erabiliko da.

Astelehenetik ostiralera 17:00-18:30 arteko ordutegian: Arreta zuzena: 7,5 ordu astean.

Barne lanerako hezitzaileak 5 ordu izango ditu astean. Banaketa, esleipendunak eta Kultura eta Gazteria saileko arduradunak adostuko dute ikasturte hasieran.

2) Opor garaietako aisialdia: Koordinatzailea egon beharko da.

Kontuan harturik urte osoan zehar banatzen direla oporraldi garaiak, programaketa orokorra egin eta haurren matrikulazioa bideratzeko ezarritako orduak guztira 15 izango dira.

Haur eta gazteentzako, ekaineko azken astean hasi, eta uztailean, astelehenetik ostiralera, jai egunak ezik eta 9:00tatik 12:30tara izango dira.

Dena den, ordutegi hauek, zerbitzuaren eskaera eta beharren arabera, aldaketak izan ditzakete Idiazabalgo Udaleko Kultura eta Gazteria Sailak hala eskatuz gero. Nolanahi ere, zehaztutako ordu kopuruak beti errespetatuz.

Gainera Aste Santuetan (egutegian markaturik azaltzen den egunak kontutan hartuaz), aisialdi jarduera berezi hauek antolatuko dira astelehenetik ostiralera, jai egunak ezik eta 10:00tatik 13:00tara izango dira.

Kultura eta Gazteria Sailetako arduradunekin adostutako egutegi eta ordutegiaren baitan, opor garaiko aisialdiaren prestatzea bideratuko da.

3) **Gaztelekua** : hezitzaile bat egon beharko da, larunbata eta igandeetan, Irailean hasi eta ekaineko hirugarren astera (biak barne). Iraila, zerbitzuaren irekiera prestatzeko erabiliko da.

Larunbata eta igandeetan 17:00-20:00 ordutegian.

Barne lanerako hezitzaileak 1 ordu izango du astean. Banaketa, esleipendunak eta Kultura eta Gazteria saileko arduradunak adostuko dute ikasturte hasieran.

Aurrez zehaztutako egunetan, ikastaro trinko batzuk antolatuko dira begirale guztiak parte hartu beharko dutenak, udaleku eta opor garaietako koordinatzaileek antolatuko dituztelarik. Saio hauek, guztira, gehienez, 16 ordu iraun dezakete.

Begiraleen kopurua, haur eta gazteen izen-emate kopuruaren baitan zehaztuko da, beti ere ekainaren 25eko 170/1985 dekretuko 2.artikuluan, neska-mutikoen eta gazteen kanpamenduen, kolonien, koloni irekien, lan kanpaketen eta ibilaldietako kanpaketen jaurpidea araupetzen duena, zehazten diren ratioak errespetatuz.

Begirale lanetan arituko direnen ordutegia, opor garaietan, goizeko 9:00etatik 12:30etara izango da.

Esleipenduna behartuta dago Lan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun, higiene eta arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzera. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Kontratuak irauten duen bitartean, aldaketaren bat baldin badago, erretiroa dela, heriotza dela, borondatezko baja dela enpresan, kaleratzea dela, elbarritasun iraunkorra dela... edo zerbitzuaren beharregatik aldaketaren bat ematen den guztietan, eskatutako profila betetzen duen bere ordezkoa jarri beharko du esleipendunak.



Zerbitzu hauek emateko betebeharreko baldintza izango da, sortutako taldeetako gutxieneko pertsona kopurua 8 lagunekoa izatea, kopuru hau baino gutxiagokoa bada, ez da zerbitzurik eskeiniko.

6.2. Langileen prestakuntza baldintzak

Udal Ludoteka, Gazteleku eta opor garaietako aisialdia eta Gazte Aisia Zerbitzuan jardungo duten langileek ondoko prestakuntza baldintza hauek bete beharko dituzte: Gizarte Hezkuntza Gradua izan beharko dute edo Heziketaren zein Gizarte Zientzien arloan erdi zein goi mailako beste titulazioa (Pedagogia, Psikologia, Psikopedagogia, Magisterita...).

Horrez gain Aisialdiko Begirale Tituluaren jabe izan beharko dira begiraleen %40 gutxienez, EAEko Kultura eta Turismo sailak, ekainaren 25eko 170/1985 Dekretuak arautzen duena betez.

6.3. Udalarekin harremanetarako arduraduna

Empresa esleipendunak Udalarekin harremanak izateko eta behar den informazioa emateko arduradun bat izendatuko du. Enpresako arduradun honek, bai gai teknikoei eta baita gai administratiboei irtenbidea aurkitzeko ahalmena izango du. Enpresak izendatutako arduradunak enpresak adierazitako komunikazio sistemaren bidez uneoro erraz aurkitzeko moduan egon beharko du.

6.4. Kontratutako langileen agirien aurkezpena

Kontratua gauzatzen hasi aurretik, enpresa esleipendunak, zerbitzuan lanean ariko diren langileen ondorengo agiriak aurkeztu beharko ditu:

- Gizarte Segurantzaren alta emana izatea egiaztatzen duen agiria.
- Lan kontratuaren kopia.
- Eskatu diren beharrezko prestakuntza betetzen dutenaren agiria (titulazioa, hizkuntza gaitasuna)
- Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ezezko ziurtagiria. ...).

7. EUSKARA

a) Hizkuntza-gaitasuna:

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileen administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, Europako Erreferentzi markoaren C1 gaitasun maila egiaztatu beharko dute langile guztiek.

b) Hizkuntza-paisaia:

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.

Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin alde aurretik adostuta.

8. INBENTARIOA

Esleipendunak, hasierako inbentario egingo du Udalarekin batera eta hau, kontratua irauten duen bitartean eguneratua eduki beharko du; zainketaz arduratuko da eta Udalari jakinaraziko dio edozein desagerteta eta ondatzea gertatuz gero.

Haseran dauden ondare guztiak eta esleipendunak instalakuntzei gehitu diezazkiokenak Idiazabalgo Udalaren esku geratuko dira kontratua amaitzen denean, beti ere egoera onean eta funtzionatzeko moduan.

9. IKUSKAPENA



Udalak **Haur eta Gazteen Balio Anitzeko Zerbitzu** zerbitzuarekin zuzenean lotutako jarduerak ikuska ditzake, esleipendunaren betebeharrak egiaztatzeko. Esleipendunaren baldintza teknikoak betetzen diren edo ez ikuskatu ahal izango du. Administrazioak zerbitzuak kanpotik ikuskatzearekin batera, esleipendunak zerbitzuak etengabe ikuskatu behar ditu barrutik.

10. ESLEIPENDUNAREN ARDURA

Esleipendunaren ardura da kontratua-eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 214. Artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Halaber, zerbitzua ematerakoan hartzaileek jasan lezaketzen edozein motatako istripu edo gertakari kaltekor ere bere gain hartu beharko du.

Horretarako, eta zerbitzua ematen hasi aurretik, enpresa esleipendunak zerbitzu honen xede guztia estaliko duen Erantzukizun Zibiliko Asegurua itundu beharko du entitate aseguratzailearen batekin.

Enpresa esleipendunak langileen lan baldintza egokiak bermatu behar ditu, Gipuzkoako Esku Hartze Sozialari buruzko hitzarmen kolektiboaren arabera lan baldintzak bermatuz kontratatutako langileei. Hitzarmen honen barruan 4.Taldeari dagokion soldata maila ezarri beharko die gutxienez kontratatutako langileei.

11. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren gehieneko aurrekontua urtean **60.000** €koa da (%21eko BEZ-a barne), ondorengo banaketarekin: 49.586,78 € printzipalari dagokio eta 10.413,22 €, %21eko BEZari dagokiona. Lizitatzailerak kopuru horretatik behera dagoen eskaintza egin dezakete, bestelako kopuru zehatz bat proposatuz.

Kontu izendapen honetatik ordainduko da: 1.227.00.337.20 (2017)

12. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

A) Automatikoki ebaluagarriak ez diren irizpideak: 49 puntu

Honako hauek ebaluatu eta puntuatuko dira:

1. Proiektuaren ezaugarriak: oinarrak eta helburuak: 12 puntu

- Zerbitzuetako erabiltzaileen adin tarteko ezberdinen begirako proposamen eta eduki zehatzak: 8 puntu
- Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistemari egokitzea: 2 puntu
- Marko teorikoa, helburu zehatzak eta proposatzen diren ekimenak era egokian uztartzea: 2 puntu

2.Lan-metodologia (12 puntu)

- Eskaintza bakoitzeko zuzeneko arretan jarduera arlo bakoitza nola landuko den zehaztea (aisia hezitzaile, parte hartzea, sorkuntza, informazioa, orientazioa, bide laguntza): 8 puntu
- Barneko lanaren antolakuntzaren proposamena: planifikatzeko, ebaluatzeko, koordinazio mailetan: 2 puntu
- Zeharkako lerroak nola jorratuko diren azaltzea: 2 puntu

3-Proposamena udalerriaren errealitatera egokitzea (10 puntu)

- Herriko errealitatea, baliabideak, elkarrekin... ezagutza eta haiekiko elkarlana eta koordinazio proposamena: 6 puntu
- Auzo zein herri mailako ekimenetan esku hartzeko proposamen zehatzak: 4 puntu

4. Hautazko proposamenen ezaugarriak: 9 puntu

- Balotatuko dira talde bat osatzeko behar adinako umerik edo bneraberik ez dagoen kasuetan, proposamen alternatiboen malgutasuna, kopurua eta malgutasuna eta jatorrizkotasuna: 4,5 puntu
- Baloratuko da premia berezia duten haurrei eta nerabeei zuzendutako zerbitzuak eta zerbitzuen egokitasuna: 4,5 puntu

5. Kontratua burutu behar duen langileriaren formakuntza eta lanbidezko zein hizkuntzako

kualifikazioa eta horien esperientzia: 4,5 puntu. Balioetsiko dira gradu eta goi mailako titulazioak, berezitasun-ikastaroak, 3 HEtik gorako hizkuntza gaitasuna eta informatika eta teknologia berriei buruzko ezagutza.

6. Hobekuntzak: 1,5 puntu Balioetsiko dira eskaintako zerbitzuen eta jardueren zenbakia eta materialak eskuratzea Administrazioak kosturik izan gabe (B kartazala)



Horien balorazio ekonomikoa eurotan aurkeztuko da 1. Eranskinaren arabera (C kartazala)

B) Automatikoki ebaluagarriak diren irizpideak: 51 puntu

■ Eskaintza ekonomikoa: 51 puntu

Balorazioa egingo da era honetan:

Puntuaziorik handiena emango zaio preziorik merkeena eskaintzen duen proposamenari, huts lizitazio prezio berbera eskaintzen duen proposamenari eta gainontzeko proposamenen puntuazioa ateratzen da formula honetatik: prezio merkeena duen eskaintzaren eta baloratzen den lizitatzaillearen eskaintzaren arteko zatidura bider irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoa, ateratzen den emaitza. Hau da,

$$PI = Ob/Ol \times 40$$

Non-eta:

PI: lizitatzaillearen puntuazioa

Ob: eskaintzarik txikiena

Ol: lizitatzaillearen eskaintza

13. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraunaldia hiru urtekoa izango da, kontratu administratiboa sinatu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Hala ere, kontratua urtero luzatu ahal izango da, beste hiru urtez.

Kontratuaren iraupen osoak, luzapenak barne, ezingo du 6 urtetik gorakoa izan.

14. B KARTAZALEAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Lizitatzailleek aurkeztu beharko dute ZERBITZUEN PROIEKTUA.. Proiektu horretan azalduko dute:

1. Proiektuaren ezaugarriak: oinarrak eta helburuak
2. Lan-metodologia
3. Proposamena udalerriaren errealitatera egokitzeko
4. Hautazko proposamenen ezaugarriak:
 - Baloratuko dira talde bat osatzeko behar adinako umerik edo bneraberik ez dagoen kasuetan, proposamen alternatiboen malgutasuna, kopurua eta malgutasuna eta jatorrizkotasuna
 - Baloratuko da premia berezia duten haurrei eta nerabeei zuzendutako zerbitzuak eta zerbitzuen egokitasuna
5. Kontratua burutu behar duen langileriaren formakuntza eta lanbidezko zein hizkuntzako kualifikazioa eta horien esperientzia azalduko ditu.
6. Hobekuntzak proposatuko ditu.

OHARRA: Horien balorazio ekonomikoa eurotan ezin da aurkeztu B kartazalean.

B gutunazalean edozein datu ekonomiko sartuz gero, lizitatzaillea prozedura honetatik at geratuko da eta ez da C gutunazala irekiko.

Idiazabalen, 2017ko abuztuaren 8an.

ERRO S:COOP
Elixabete Lopez de Muniain

IDIAZABALGO UDALA
Irantzu Arrizabalaga Gainza

